



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE INCLUSIÓN, SEGURIDAD SOCIAL
Y MIGRACIONES



SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL
Y PENSIONES

INSTITUTO SOCIAL
DE LA MARINA



SECRETARÍA DE ESTADO DE LA SEGURIDAD SOCIAL y
PENSIONES

INSTITUTO SOCIAL DE LA MARINA

SUBDIRECCIÓN GENERAL DE ACCIÓN SOCIAL MARÍTIMA

ITSAS EKINTZA SOZIALEKO ZUZENDARIORETZA NAGUSIKO KALITAZTEKO POLITIKA

Rev: 10

Fecha: 18.04.2022

Engungo gizartea gero eta zorrotzagoa da eskaintzen dizkiogun zerbitzuekiko. Gainera, arlo batzuetan eskakizun horiek globalizatuta daude. Hori dela eta, Itsasoko Gizarte Institutuak aurrerapen-jarduera egiten hasi da, eskaintza horiei era egokian erantzuna emateko. Itsas ekintza Sozial Arloan eta Itsas Osasunbideko Arloan Kalitatezko Kudeaketa Sistema bat ezarri du, zeinak kalitatea erakundearen gai estrategiko eta gestio-ardatz bihurtu duen. Beraz, Institutuak esparru horretan etengabe egiten du lan, hainbat helburu sortuz, eskaintzen dituen zerbitzuen kalitatea hobetzeko.

Itsas Ekintza Sozialeko Zuzendariordeak, beren-beregi, adierazten du baldintzak betetzeko eta Kalitatezko Kudeaketa Sistema hobetzeko asmo sendoa duela. Honako helburuak lortzeko:

1. Institutuaren barneko bezeroak (funtzionarioak eta kolaboratzaileak) zein kanpokoak (erabiltzaileak eta onuradunak) asetzera zuzendariordetza bideratzea.
2. Gure zerbitzuaren garapenari atxikitako baldintza, lege eta gaineko arauak betetzea
3. Sistemaren funtzionamendurako beharrezkoak diren giza-eta teknika- baliabideak eskaintzea eta haien gaitasuna irauaraztea.
4. Kalitatea hobetzearen alde denon engaiamendua lortzeko, komunikazioa eta elkarlana bultzatu eta inplikazioa eta lankidetzatza maila guztietan areagotzea.
5. Langileen partaidetasuna eta erantzukizuna eragitea, bai Kalitatezko Kudeaketa Sistemaren funtzionamenduan, bai erakundearen kultura horren garapenean
6. Itsasoko Gizarte Institutuak zehaztu dituen kalitatezko konpromisoak kontuan hartuta, itsas sektorea osatzen duten pertsona guztiei eta onuradunei prebentziozko osasun-laguntza eskaintzea
7. Itsasoko Gizarte Institutuaren Itsas Lanbide- eta Osasun Heziketa Urtebeteko Planak agintzen dituen itsas espezialitateko kurtsoak, eta bereziki goi-espezializazioko kurtsoak eskaintzea, ontzian lanbide-jarduera garatzeko derrigor egin beharreko espezializazioko kurtsoak eta itsas lanbide-heziketa osa dezaketen kurtsoak barne. Formazioaren premia detektatzeko ikerketen eta kurtsoetara bertaratutako ikasleen enplegagarritasunaren bilakaeraren bitartez neurtuko da kurtsoetan berenganatutako prestakuntzak eta lanbide-gaitasunak duten eragina lan-txertatzean itsas arrantza-sektorean
8. Balizko legediaren arabera eskubidea duten guztietan, eta ezarritako estandarren arabera, ostatua eskaintzea eta koordinatzea; bai iragaitzazko itsas langileei, Zeutako eta Melillako ostatuetan; bai trebakuntza-ikastaroetara joaten diren ikasleei, CNF ko egoitzetan.
9. Itsasoko lanetik eratorritako egoera bereziei erantzuteko, itsasoko langileen Gizarte Segurantzako Araubide Bereziko langile eta onuradunentzako laguntza-prestazioak arautzea, eta pertsona horientzako zenbait zerbitzu ezartzea.
10. Irrati Medikoko Zentroaren bidez, gaixoei edo istripua izan dutenei mediku-laguntza ematea telemedikuntzaren bidez.
11. Osasun-laguntza in situ ematea hala eskatzen duen eta bere estaldura-eremuaren barruan dagoen edozein itsasontziri, eta pazientearen itsasontziaren edo laguntza-ontziaren kontsulta anbulatorioa erraztea irrati bidezko kontsulta medikoan, asistentzia-ontzian ospitaleratzea, hala agintzen denean eta kasuaren larritasunak gaixoa lurrerako ebakuazioa ahalik eta modurik egokienean eta azkarrenean kudeatzea eskatzen duenean.

Itsas Ekintza Sozialeko Zuzendariordeak Kalitate Politika hori zehaztu du, eta barneko komunikazio eta motibazio plan egoki baten bidez bermatzen du Formakuntzan eta Itsas Osasunbidean lan egiten duten pertsona guztiek ulertu eta erabiliko dutela aipatutako sistema. Bermatzen du, halaber, aldizkako berrazterketen eta barneko [eta kanpoko](#) ikuskaritzaren bidez Kalitatearen Sistema horretako funtzionamendua eguneratua, egokia eta gero eta eraginkorragoa izango dela.

Itsasoko Gizarte Ekintzako Zuzendariorde Nagusia